



HEZKUNTZA LEGE HAU IRUZUR HANDIA DA!

BERTAN BEHERA UTZI BEHAR DA!

Gaur Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak ontzat eman nahi du Hezkuntza Legea, osoko bilkuraren behin-betiko onarpenari bide emateko. Hori dela eta, Euskal Eskola Publikoaren gehiengo ordezkatzen dugunok, **Hezkuntza Legeari gure ezezko borobila** emango diogu hemen, Legebiltzarraren aurrean, bozketa sinboliko honekin.

Gogorarazi beharra dago, **Lege iruzurti honek Irakaskuntza Publikoaren gehiengoaren gaitzespena duela**: hiru lurraldetako tokian tokiko hainbat herri-plataforma, EHIGE, HEIZE, gehiengo sindikala (Steilas, ELA, CCOO), Ikasleen mugimendua, EHUko hainbat irakasle...

Legearekiko gure erabateko desadostasuna adierazi dugu azken bi urteetan, bai Legebiltzarrean egindako agerraldi ugarietan, bai milaka herritarren kontrako jarrera bilduz hiru hiriburuetan, azkena duela hilabete Donostian. **Ez dute aintzat hartu sare publikoaren gehiengo ordezkatzen dugunon proposamen bat ere.**

Berriro esan behar dugu, onartu nahi den Hezkuntza lege hau gizarteari egiten zaion iruzur handia dela:

- **Babes sozialik gabea eta adostasun eskaseko legea** da. Hurrengo hamarkadetarako estrategikoa beharko lukeen legea **ahula** da jatorriz.
- **Hezkuntza publikoko komunitatearen parte hartzerik gabe egin den legea** da, hain zuzen ere, Eskola Publikoaren kaltetan egindakoa da. Eusko Jaurlaritzak **entzungor egin dio**, Eskola Publikoaren izenean **esandako guztiari**.
- **Hezkuntza-sistemaren pribatizazioan sakontzen duen legea** da, sare publikoa eta pribatua berdinduz. Sare pribatuari, inongo baldintzarik bete gabe finantzazioa bermatzen dien bitartean, eskola publikoa bazter uzten du finantzazio planik ezean.
- **Ez die erantzuten hezkuntza-sistemak dituen erronkei**:
 - . Ez du neurri eraginkorrik proposatzen **eskola-segregazioari aurre egiteko**, ezta ghetto bihurtu diren ikastetxeei buelta emateko ere.
 - . Ez du ikasle guztien **euskalduntzea bermatzen** eta hizkuntza-ereduek indarrean jarraituko dute.
- **Ez du ezer arautzen** segregazioaren, euskalduntzearen eta laikotasunaren inguruan, eta “zelaia” libre uzten du autonomia faltsu baten izenean, ikastetxeen arteko lehia bultzatzeko, merkatuaren logika hutsean.
- **Soilik itunpeko sarearen interesei erantzuten dien legea** da, hau da, ikastetxe pribatu, erlijioso zein ikastola itunpekoen interesei. Hartara, sare pribatura bideratzen ditu ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza bermatzeko eskola publikoak behar dituen baliabideak.

Horregatik, oinarrizko eskubideen eta gizarte-kohesioaren izenean, **LEGE HAU BERTAN BEHERA UTZI BEHAR DA** eta **ESKOLA PUBLIKOA LEHENETSI**, irakaskuntzako zerbitzu publikoa **hezkuntza sistemaren ardatza bihurtu** dadin.

2023ko azaroak 29

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO TOPAGUNEA